

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Otetan

URRE KOLORETAN LORE DA otea, *Ulex europaeus*. Gure otadi eta otatzetan ezagunena dugun honi ote zuria ere deitzen zaio. Bi subespezie bereizten dira, *Ulex europaeus* subsp. *europaeus* eta subsp. *latebracteatus*. Ez da gurean espezie bakarra, ordea, ez gure paisaia kulturalean, ezta gure kulturaren paisaian ere. Ote beltza ere badugu. *Ulex minor* edo *Ulex gallii*, bati zein besteari deitzen zaie beltz.

Baztanen, urre meatzetako lurra urarekin nahasi, ote zarbekin egindako galbahetan iragazi eta urre-pipittak jasotzen zituzten. Baten bat aberastuko zen urre hauen lepotik. Otaka da otearen lepoa, sutarako ederra enborra. Otaxka ere bai, agian... Eta Otalera? Otez egindako narra edo menditik ote sortak etxeratzeko lera, zer ote?

Jende asko aberastu izan du oteak, baita landare jendea ere. Lur azido, lehor eta goseen adierazle da otea; landare gehienak halamoduz iraungo duten lurak amaren batean bereganatzen ditu. Eta aberastu. Otadiak orbela eta inaurkinak pilatzen ditu eta lurra ongarritze bidean jarri. Beste zuhaixkak eta zuhaitzak sail horietara ekartzeko bidea jartzen du. Eguzki zalea izaki, desagertzeraino egingo du atzera esker txarreko zuhaitzoz itzalean. Nekazaritzak utzitako sailak baso natural bihurtzeko berezko bidean, tarteko ekosistema da otatza.

Landutako lur-sailen ongarrigaia ere bada otea. Aizkoraz edo horretarakoxe sortutako makina aproposaz txikitutako otea aziendaren azpietatik ateratako simaur

berriarekin nahasten zen. Usteltzen, ontzen utzi eta luarra edo kortaloia egina.

Gosetean aziendak ez dio ote-punttari muzin egingo. Ukuiluetako manjateratan ere ezagutu omen dute ote txikitua. Horregatik deituko ote zaio ganbelari otalakoa? Goiko larreetan elurak harrapatutako artalde-
ren baten bezeramaileari galdetu beharko... Soroetan otea ereiten ote zen entzun izanaren ustea badut. Ote-sega ere ezaguna da. Mendiko otaka zaharretan ez zuten erabiliko. Soroetako urteko ote gurietan agian...

Urretarako, kortaloitarako, haziendarentzat... ote dohatsua! Lehen eta orain. Lur pobreetan otea bera baino errazago ugaritzen ari diren urrea erosteko dendak, otearen lorearen horiaz margotzen dituzte, adiskidea.



GENE SELCOV-CC BY SA

50

Sagardoa botilaratzeko sasoia etorria da. Kupel arteko lurrin gozoetan botila hauen ekonomiaz mintzatu zen lagun bat. Ez dakit nondik ikasia omen zuen ekonomia lezioa: 2007an 1.000 euro eduki eta Royal Bank of Scotland bankuko akzioak erosi izanez gero, egun 29 euro lirake. Mila euroak Fortis etxean inbertitu izan bagenitu, egun 39 euro lirake. Mila euro haiekin bostehundik gora botila sagardo erosi, edan eta botila hutsak saldaz gero, gutxi gorabehera 50 euro izango genituzke egun.

Nik, hurrena ere, elkarrekin sagardoa edateko gonbidapena egingo diot.



BASKIMAGEN



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Bolaleku S.A.T.

Konpost planta

Bi•lurra
Compost ongari organikoa

LORE•LURRA
Sustrato unibertuala

Lur begetal ongarriritua, ereindakoa, estaltzekoa,
ldor apaingarriak, trabesak.

Bakio bidea, 13 (Emerando)
Tlf.: 94 674 33 55
677 42 64 00
www.bolaleku.com

48100 Mungia
Bizkaia